Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko apirilaren 29a, asteazkena — 79 — Miércoles, a 29 de abril de 2020

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ZARAUZKO UDALA

*2020ko ekitaldiko egutegi fiskala aldatzea eta beste zerga-neurri batzuk hartzea.*

Alkatetzak, 2019ko abenduaren 20ko 1447 Dekretuaren bidez, 2020ko ekitaldiko egutegi fiskala onartu zuen.

Covid-19k sortutako larrialdi sanitarioaren egoeraren ondorioz eta Estatuak martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez dekretatutako alarma-egoeraren adierazpenaren ondorioz, pentsatzen da beharrezkoa dela egutegi fiskala aldatzea, herritarrei eta enpresei erraztasunak emateko zergen ordainketan.

463/2020 Errege Dekretuak, martxoaren 14koak, Covid-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera adierazten duenak, Hirugarren Xedapen Gehigarrian esaten du eten egiten direla sektore publikoko entitateetako prozedurak.

Bestalde, 465/2020 Errege Dekretuak, martxoaren 17koak, 463/2020 Errege Dekretua aldatzen duenak, 5 eta 6 atalak eransten dizkio Hirugarren Xedapen Gehigarriari. Honela gelditzen da idatzita: «(…) Lehen atalean aipatzen den baldintzen eta epeen etenaldia ez zaie aplikatuko araudi bereziari lotutako zerga-epeei, eta ez die eragingo, bereziki, zerga-aitorpenak eta autolikidazioak aurkezteko epeei».

Bai 8/2020 Errege Lege Dekretuak (martxoaren 17koa, Covid-19ren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko ezohiko eta premiazko neurriei buruzkoa: 33 artikulua) bai Gipuzkoako Lurralde Historikoaren foru zerga sistemaren menpe dauden zergapekoei aplikatzekoa den 1/2020 Foru Dekretu-Arauak (martxoaren 24koa, Covid-19 gaitzaren osasun krisiaren ondorioz zerga arloko neurri jakin batzuk onartzen dituena), epeak luzatzea aurreikusten dute likidazio bidez kudeatzen diren zergetan, baina ez dute ezer aurreikusten jakinarazpen kolektibo bidez egiten diren aldiroko zorren kobrantzari buruz.

Beraz, kontuan hartuta bai 2/2016 Legeak (Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa) 17 artikuluan xedatutakoa, bai 7/1985 Legeak (Toki Araubidearen Oinarrienak) 21 artikuluan xedatutakoa, eta 8/2020 Errege Lege Dekretuak (Covid-19ren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko ezohiko eta premiazko neurriei buruzkoa) eta 1/2020 Foru Dekretu-Arauak (martxoaren 24koa, Covid-19 gaitzaren osasun krisiaren ondorioz zerga arloko neurri jakin batzuk onartzen dituena) xedatutakoa, honako hau

ERABAKITZEN DUT

*Lehena.* Egutegi fiskala aldatzea, 2020ko ekitaldiari dagozkion jakinarazpen kolektiboko aldiroko honako zergen borondatezko ordainaldiari dagokionez:

## AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ

*Modificación del calendario fiscal del ejercicio 2020 y adopción de otras medidas tributarias.*

Resultando que el día 20 de diciembre de 2019, por Decreto de Alcaldía núm. 1447 se aprobó el calendario fiscal de los tributos del ejercicio 2020.

Resultando que, debido a la situación de emergencia sanitaria ocasionada por el Covid-19 y la declaración de estado de alarma decretada por el Estado mediante Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, se considera necesaria la modificación del calendario fiscal con la finalidad de facilitar a la ciudadanía y empresas el pago de tributos.

Vista la Disposición Adicional Tercera apartado primero del Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, por el que se declara el estado de alarma para la gestión de la situación sanitaria ocasionada por el Covid-19, que declara la suspensión de los procedimientos de todas las entidades del sector público.

Visto el Real Decreto 465/2020, de 17 de marzo, por el que se modifica el Real Decreto 463/2020, por el que se añaden dos nuevos apartados 5 y 6 a la Disposición Adicional Tercera, con la redacción siguiente: «(…) 6. La suspensión de los términos y la interrupción de los plazos administrativos a que se hace referencia en el apartado 1 no será de aplicación a los plazos tributarios, sujetos a normativa especial, ni afectará, en particular, a los plazos para la presentación de declaraciones y autoliquidaciones tributarias».

Visto que tanto el artículo 33 del Real Decreto-Ley 8/2020, de 17 de marzo, de medidas urgentes extraordinarias para hacer frente al impacto económico y social del Covid-19 como el Decreto Foral-Norma 1/2020, de 24 de marzo, por el que se aprueban determinadas medidas de carácter tributario como consecuencia de la crisis sanitaria del Covid-19, aplicable a los obligados tributarios sometidos al sistema tributario foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa, prevén la ampliación de plazos de pagos de deudas tributarias gestionadas mediante liquidación pero no efectúan previsión alguna en cuanto al cobro de deudas periódicas mediante notificación colectiva.

Considerando lo dispuesto en el artículo 17 de la Ley 2/2016 de Instituciones Locales de Euskadi, y en el artículo 21 de la Ley 7/1985 de Bases de Régimen Local, en el Real Decreto-Ley 8/2020 por el que se establecen medidas urgentes extraordinarias para hacer frente al impacto económico y social del Covid-19 y en el Decreto Foral-Norma 1/2020, de 24 de marzo, por el que se aprueban determinadas medidas de carácter tributario como consecuencia de la crisis sanitaria del Covid-19,

RESUELVO

*Primero.* Modificar el calendario fiscal en cuanto al periodo de pago en voluntaria de los tributos de vencimiento periódico y notificación colectiva correspondiente al ejercicio 2020, que a continuación se detallan:

EK\CV GAO-I-2020-01896

| *Urtean behin ordaindu beharreko zergak* | *Borondatezko ordainaldia* | *Helbideratutako ordainagirien kobrantza-eguna* |
|---|---|---|
| Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga (TMIZ) | 2020.03.02- 2020.07.01 | Borondatezko epearen azken eguna |
| Ondasun Higiezinen gaineko Zerga (OHZ) | 2020.08.01–2020.09.15 | Borondatezko epearen azken eguna |
| SEI HILABETEAN BEHIN ORDAINDU BEHARREKO TASAK | | |
| Mahaiak, aulkiak, beladoreak eta antzeko beste elementuak jartzeagatik: 1. denboraldia | 2020.07.01–2020.08.03 | Borondatezko epearen azken eguna |

| *Tributos de periodicidad anual* | *Períodos voluntarios de pago* | *Cobro de recibos domiciliados* |
|---|---|---|
| Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica (IVTM) | 02.03.2020 – 01.07.2020 | Último día del período voluntario |
| Impuesto sobre Bienes Inmuebles (I.B.I.) | 01.08.2020 – 15.09.2020 | Último día del período voluntario |
| TRIBUTOS DE PERIODICIDAD SEMESTRAL | | |
| Tasa por ocupación de vía pública con mesas, sillas y veladores. Temporada 1 | 01.07.2020 – 03.08.2020 | Último día del período voluntario |

*Bigarrena.* Tasei eta prezio publikoei dagokienez (beladoreen, mahaien eta aulkien eta antzeko beste elementu batzuen okupazioa, etxeko laguntza, merkatua, eguneko zentroa, haurtzaindegia...), baldin Estatuak martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez dekretatutako alarma-egoeraren adierazpenaren ondorioz zerbitzu publikoa edo okupazioa eten edo geldiarazi bada, kuotak proportzionalki banatuko dira, benetan emandako zerbitzuaren edo egindako okupazioaren arabera. Beraz, aurrez ordaindutako zenbatekoak itzuli egingo dira (halakorik balego) eta/edo dagokion zatia likidatu egingo da.

*Hirugarrena.* Martxoaren 24ko 1/2020 Foru Dekretu-Arauak, Covid-19 gaitzaren osasun krisiaren ondorioz zerga arloko neurri jakin batzuk onartzen dituenak, tokiko entitateentzat jarritako neurriak aplikatzea.

*Laugarrena.* Ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Udaleko iragarki-taulan jartzea, denek jakin dezaten.

Zarautz, 2020ko apirilaren 21a.—Xabier Txurruka Fernandez, alkatea. (1896)

*Segundo.* En lo relativo a las Tasas y precios públicos (ocupación con veladores, mesas y sillas y otros elementos análogos, ayuda a domicilio, mercado, centro de día, guardería ...) en la medida en que debido a la declaración del estado de alarma decretado por el Estado mediante Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo el servicio público o la ocupación se haya visto suspendido o interrumpido, se prorratearán las cuotas en función de la prestación y ocupación efectivas, devolviendo, en su caso, los importes previamente abonados, y/o liquidando la parte que proceda.

*Tercero.* Aplicar las medidas establecidas para las entidades locales en el Decreto Foral-Norma 1/2020, de 24 de marzo, por el que se aprueban determinadas medidas de carácter tributario como consecuencia de la crisis sanitaria del Covid-19.

*Cuarto.* Publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento, para general conocimiento.

Zarautz, a 21 de abril de 2020.—El alcalde, Xabier Txurruka Fernandez. (1896)


EK\CV GAO-I-2020-01896